

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

“Impulso Emprendedor” programaren zazpigarren edizioa ireki da, eta zortzi enpresa proiektu berritzaile bultzatuko ditu

Apirilaren 12ra arte enpresa berriak sor daitezzen, programa honetan parte hartzeko hautagaitzak aurkez daitezke

Astelehena, 2019.eko martxoak 11

Nafarroako Gobernuak "Impulso Emprendedor" programaren zazpigarren edizioa abiarazi du. Zortzi enpresa-proiektu berritzailei, lan intentsibo, tutoretza eta finantza-laguntza programa zehatza emanen die, garatu ahal izateko, aurrera egiteko eta martxan jartzeko behin betiko bultzada izanik.

Manu Ayerdi Ekonomia Garapeneko

lehendakariordeak, deialdi berri hau, gaur astelehena, aurkeztu du, saioa babestu duten enpresen ordezkariak parte hartu duten ekitaldian eta hauekin lankidetzeta-hitzarmena sinatu du. Bertan, Nafarroako Enpresen eta Berrikuntzaren Europako Zentroa enpresa publikoaren (CEIN) ordezkari Pilar Irigoien ere egon da.

Edizio berri hau, Nafarroako Rural Kutxa, Arrasate korporazioa, Correos, Inycom, MTorres, Viscofán eta Zabala Innovation Consulting, enpresekin lankidetzan dago eta hauek parte hartuko duten proiektuak tutorizatuko dituzte. Gainera, hautatutako proiektu bakoitzari 8.000 euroko diru-saria emanen diote.

CEINek, bere aldetik, hautatutako zortzi proiektuei lan-saio oso bat eskainiko die, negozio aukera erreal gisa konfiguratu ahal izateko eta merkatura atera daitezzen, enpresa bideragarri, berritzaile eta eskalagarri bezala.

Parte hartzen duten sustatzaileek beste zerbitzu batzuk ere izango dituzte eskura, esate baterako, banakako tutoretzak, CEINeko mintegi berritzailean sei hilabetez doan ezartzeko, edota finantzaketan sartzeko lehentasuna izan.

Hautagaitzak eta aukeraketa

“Impulso Emprendedor” edozein lekutatik etorritako ekintzaili irekita dago. Halaber, pertsona hauek Nafarroan errealitate bihurtu nahi duten



Manu Ayerdi eta Pilar Irigoien, tutorizatuko duten enpresen ordezkariekin Nafarroako Jauregian.

hazteko potentziala duten proiektu berritzailea eduki behar dute.

Programan parte hartzeko interesa dutenek beren hautagaitza apirilaren 12ra arte aurkez dezakete. Eskaera orria eskuragarri dago www.cein.es webgunean, non programa honi buruzko informazio guztia ere aurki daiteke.

Behin eskaera guztiak jasota, CEINeko ebaluazio batzorde batek proiektuen lehen aurre-hautaketa egingen du, ondorengo irizpideak kontuan hartuz: ekintzaile-taldea, negozio-ideiaren analisia, hazkunde potentziala, berrikuntza eta lortutako mugarriak.

Aurre-hautatutako proiektuak, parte-hartutako enpresen ordezkariak ebaluatuko dituzte, maiatzaren 30ean, eta baita aukeratu programan azkenik sartuko diren lanak ere.